

PUNTA BEGOÑA

Galeriak

Areto nagusiaren azpiko gune berrirako sarrera, igogailu panoramikoa, aretoa iragazgaiztea eta sarrera berria hegoko galeriatik, 2017ko lehenengo lanak

Punta Begoñako galerien balioa nabarmentzeko lanetan parte hartzen duten UPV/EHUko ikerketa taldeen eta udal teknikarien lanaren ondorioz, datozen hiletan zenbait esku hartze egingo dira eraikinean, beraren irisgarritasuna hobetzeko eta bertan atzeman diren zenbait arazo konpontzeko. Apirilean areto nagusiaren azpiko espazio baten sarreran, aretoaren tamainaren antzekoa duena, lanean hasiko da. Aurkikuntza hau ustekabeko itzela izan da, eraikinaren planoetan ez zegoelako ezer adierazita. Zona horrek aretoaren forjatuaren egoera estrukturala eta zimentazioa berrikusteko aukera ematen du. Baina horretarako, hara iristeko pasabide seguru bat eraiki beharra dago. Gainera, esku hartze hau aprobetxatuz, espazio hori sarrerako eskalarekin komunikatuko da. Denborarekin, leku hori erakusketa-zona gisa erabiliko da, galerietan egiten ari diren aurkikuntza eta jardueren berri emateko.

Igogailu panoramikoa

Aurreikusituz, galeriak leku irisgarriagoa izango dira urteko bigarren hiruhilekotik aurrera, Ereagako hondartzaren aurrean dagoen sarreran igogailu bat jarritz. Punta Begoñarako aukeratzen den igogailua panoramikoa da atzealdean, eta eraikinaren eta hondartzako zenbait zonaren ikuspegia eskainiko du. Galerien ondare-balioa kontuan izanik, eta beraietan inpaktu bisual eta fisiko ahalik eta txikiena izateko asmoz, eraikinarekin harmonikoa den diseinu bat hautatu da. Igogailuak hiru geltoki izango ditu (behekoa, aretoaren azpiko sarbidea, eta aretoaren sarbidea). 9 pertsonako eta 675 kilogramoko gaitasuna izango du, eta altzairu herdoilgaitzez eginda egongo da. Akabera hori egokia da egongo den lekurako, horrek inpaktu bisuala murrizten baitu. Hura instalatzeko lanak hasi dira dagoeneko.



Areto nagusiaren azpian aurkitutako gune berria

Aretoa iragazgaiztea

Galerietako areto nagusiaren arazo nagusietako bat da urak nola eragiten dion. Espazio honen gainean urputzu bat sortu da, beheantz iragazten dena eta egitura, hormak eta pinturak kaltetzen dituena, eta itoginak sortzen dituena. 2017. urteko bigarren sei hilekoan arazoa aurkitu den zona iragazgaiztuko da. UPV/EHUko ikerketaileek fokua aurkitu eta mugatu dute eta, ondorioz, konponbide askoz ere lokalizatuagoa eta merkeagoa proposatu dute. Esku hartze honen bidez, aretoa apaintzen duten elementuak eta materialak babestu ahaliko dira, eta gutxieneko erosotasun batekin erabiltzen jarraitu, galerien balioa nabarmentzeko prozesuan zehar.

Punta Begoñako sarrera berria hego-mendebaldeko galeriatik

Gaur egun ez dago Punta Begoñara sarbiderik kanpoaldetik hego-mendebaldera (Arriluzeko Gurutze Gorriaren eraikinaren aurrean dauden lorategietatik), teknikariak, ikertzaileak eta bisitariak igarotzeko beharrezkoa dena. Sarbide berri honetarako, hondartzaren aurreko sarreran dagoen egituraren antzekoa erabiliko da. Zur naturalak elementua da, bi sarrera horietan jende asko ibiltzen delako; beraz, izaera propioa duen konponbidea gura dugu, eraikinarekin harmonian dagoena, eta ahalik eta baliabide material eta bitarteko gutxien kontsumitzen dituena. Sarrera berri hau beste sarreraren osagarri da, eta haietako batetik sartzeko eta hurrengotik irteteko aukera ematen du; horrela, galerietan zehar ibilbide lineala egiteko aukera ematen da. Lanak urteko hirugarren hiruhilekoan hasiko dira.

Beti esan dugunez, Punta Begoñako Galerien balioa nabarmentzeko plana, gure 2016-2019ko Legegintzaldi Planean jasota dagoena, babestutako ondarearen kontzeptuan oinarritzen da. Eta guretzat ondarea ez da bakarrik memoria, baizik eta baliabidea. Kontzeptu honen oinarritzko lerroak hauek dira: galeriak eta beraien ingurunea lehengoratztea, metodo zientifikoekin zaharberrituz; haren memoria historikoa berreskuratzea; jakintza sortzea, ikerketak eginez eta ikerketaren emaitzak zabalduz, hainbat alorretan, bai teknikoak bai humanitateetakoak; eta ekonomia suspertzea, jakintza hori aberastasuna sortzen duten jardueretara ekariz.



Esku hartzeko plan honek erabilera publikoa eratzten du esku hartzearen hasieratik bertatik; haren destinoaren inguruko gizarteratzea eta sormenezko eztabaida ahalbidetzen ditu, beraren jatorria eta historia ezagutzeko, eta aurrekontu-konpromisoa zehazten du. Hauek dira haren balioak. Orain arte, zenbait emaitza lortu ditugu, esate baterako Punta Begoñako gatorlekuaren identifikazioa (hondakinak azpian daude), eta eraikuntza-faseak, baita erabiltzeko eraikuntza-teknikak ere, duela mende bat punta-puntakoak zirenak. Horri guztiari esker, ekitaldi honetan zaharberritze fidagarri bat egiteko lanak hasi ahaliko ditugu, zuzenketa-tratamendu egokiek eta baliabideak optimizatuz.

Amaitzeko, esan behar dut proiektu hau Euskadiko 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean sartuta dauden 50 planetako bat dela (zehazki, kultur eta aisia industriaren atalean). Horregatik guztiagatik, izaera integrala eta hainbat ikuspegi dituelako, Galerien proiektuarekin ilusio handia daukagu, are gehiago, haien kokaleku estrategikoari esker, -gure udalerriko esparru esanguratsu batean kokatuta dago-, begi bistakoa da hiritar guztientzat haren garapen eta inplementazioa.

Imanol Landa, Getxoko alkatea.

2017ko bisita gidatuak

Apirilaren 1etik uztailaren 20ra galeriak berriro bisitatu ahaliko dira. Aurtengo bisita gidatuaren formatu berria abiatuko da: hain zuzen, ibilaldi gidatuari erakusketak gehituko zaizkio hiler, proiektuaren aurrerapausoen berri emateko. Helburua UPV/EHUren ikerketak erakustea da erakusketak elementu dinamiko eta dibulgatzaileen bitartez. Hilero aldatutako dituzte eta, horiei esker, modu bisualagoan eta erakargarriagoan ezagutarazi ahaliko dira unibertsitateak egindako lanen emaitzak. Bisitaldiak EHU/UPVk eta Getxoko Udalak antolatzen dituzte. Doakoak dira eta 25 pertsonako taldeetan egin ahaliko dira gehienez, asteartetik igandera, euskaraz edo gaztelaniaz, eta hainbat ordutegitan. Libre dauden egunak eta orduak eta hizkuntzak jakiteko eta udalaren webgunean izena emateko: <https://eudala.getxo.eus/ReservaVisitasPB/ReservaVisitasPB.aspx>. Beharrezkoa da udalaren webgunean (www.getxo.eus) edo Turismo Bulegoaren telefonoaren bidez (94 491 08 00) aldeztu aurretik izena ematea.

Abuztuan, galerietarako sarrera doakoa izango da 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 20:00etara, baina ez da bisita gidaturik egongo.

Webgune berria

Punta Begoñako galeriek webgune propioa daukate martxoaz geroztik: www.puntabegonagetxo.eus. Webgune honi esker, herritarrek galerien balioa nabarmentzeko proiektuaren inguruan gertatzen diren berrikuntza eta aurrerapen guztien jarraipena egin ahaliko dute. Webgune honetan, zenbait eduki daude, galeriak eraiki baino lehen Punta Begoña nolako zen azaltzeko, proiektuaz, ardatzetatik eta ordu arte egindako lanaz informazioa emateko, eta argazki eta planoen artxibo bat (deborarekin aberastuko dena), eta proiektuaz aurkezten eta testuinguruan kokatzen lagunduko duten bideoak. Blog bat ere badu, espazio dinamikoaren inguruko dena eta proiektuaren inguruko nobedadeak jakitera emango dituena. Abiatzeko, webgunea bi hizkuntzatan egin da, euskaraz eta gaztelaniaz, baina denborarekin ingelesez eta frantsesez ere sartuko dira.

Galerietan beti gertatzen da zerbait



Testigantzak biltzea

Nolako zen bizitza galerien inguruan? Zertarako erabiltzen ziren? Ze eragin izan zuten ingurunean? Gauza batzuei herritarren testigantzen bidez bakarrik erantzun ahal zaie. Proiektuaren lehenengo faseko ikerketaren ildo garrantzitsu bat izan da Punta Begoñaren inguruan sare sozial bat identifikatzea eta horrela testigantzak jasotzea.



Zeramiken garbiketa

Zeramiken garbiketa erabateko erronka da galeriak birgaitzeko lanetan. Graffiti, enpastes, kalfifikazioz, patina zurbilez eta abarrez estalita daude. Garbiketa prozesuan, zenbait garbiketza-prozesu espezializaturerkin probak egin behar dira, jakiteko zein den eraginkorrena, eta zeramikei jatorrizko kolore eta distirak itzultzeko, kaltetu gabe.

Galeria biziak



Getxophoto Nazioarteko Argazkigintza Jaialdia

Mila pertsona baino gehiagok parte hartu zuten 2016an Getxophoto Nazioarteko Argazkigintza Jaialdiak Punta Begoñako galerietan antolatutako jardueretan. Besteak beste, Michael Weselyren hitzaldia egin zen, eta gero koktel bat. "Camas" proiektatu zen, gaueko ibilbideak egin ziren, "Ibialdia" jarduerak egin zen eta gidatutako bisitaldiak eskaini ziren. Galeriek jaialdiko erakusketak ere jaso zituzten (Juan Gómezen argazkiak).



Musika Eskolako ikasturtea amaitzeko kontzertua

Aretoak Andres Isasi Musika Eskolako hogeita hamar ikasle inguruk kontzertua eskaini zuten ikasturteari amaiera emateko. Bertan, urtean zehar ikasitako eta lortutako aurrerapenak erakutsi zituzten. Errepertorio berezia eskaini zuten, besteak beste jo baitzuten, baina gainera, kontzertuak belaunaldi arteko ikuspegia izan zuten, 8 urtetik hasita eta 60 urte baino gehiagoko ikasleetara.



Galeriak eta zientzia, Zientzia Astearen zehar batuak

Punta Begoñako sekretu ezkutak izenburuarekin, berrehun ikasle inguruk galerietan bertan egin ahal izan zuten zientzialarien lana, Zientzia Astearen (UPV/EHUren Zientziaren, Teknologiararen eta Berrikuntzaren XVI. Astea). Eskolako umeei zuzendutako taller hauen haria, hain zuzen ere, galerietan une honetan egiten ari den azterketa zientifikoko prozesua izan zen.